BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

5508

EBAZPENA, 2012ko azaroaren 9koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Cantera Zeanuri, S.L. merkataritza-sozietateak sustatuta, Zeanuriko Xorokil harrobia ustiatzeko Proiektuak duen ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, I. eranskineko B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumen-inpaktua banaka ebaluatzeko jardunbide baten mende egongo dira, eta jardunbide horri amaiera emateko ingurumen-inpaktuari buruzko deklarazioa egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko, edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio-ebazpenaren aurretik.

Zeanuriko Xorokil harrobia ustiatzeko Proiektua onartzeko prozedura hasita egonik (proiektu hori Cantera Zeanuri, S.L. merkataritza-sozietateak sustatu du), bi arau aplikatu behar dira: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra eta, bestetik, Proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzeko den urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua. Beraz, bi arau horiek betez, proiektu horrekin zerikusia duten eta jarraian jasotzeko diren izapideak gauzatu dira, besteak beste:

– Ingurumen-inpaktuaren azterketaren edukia ezartzea. Energia eta Meategien Zuzendaritzak eskatuta, 2010eko azaroaren 4an, Ingurumen Sailburuordetzak kontsulten izapideari hasiera eman zion, Proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzeko den urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan ezarritakoa betez. 2011ko otsailaren 17an, proiektuak ingurumenean zuen eraginaren azterlanaren zabalerari eta xehetasun-mailari buruzko txostena bidali zuen Ingurumen Sailburuordetzak, eta, horrela, hasitako izapidetzea bukatu egin zen.

– Jendaurreko informazioaren izapidea. Energia eta Meategien Zuzendaritzak proiektua jendaurrean jartzea erabaki zuen, eta, orobat, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlana. (2011ko urriaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 198. zk.).

– Espedientea bidali eta ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpena eskatzea. 2012ko maiatzaren 30ean, Energia eta Meategien Zuzendaritzak Ingurumen Sailburuordetzari igorri zion espedientea, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuko 12.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko (urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Proiektuek ingurumenaren gainean duten eraginari ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzeko dena). 2012ko urriaren 4an, ingurumen-organoak formulatutako betekizunekin bat, espedienteari dokumentazio osagarria erantsi zitzaion.

Erreferentziako proiektuaren espedientean dauden txostenak eta dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, eta ingurumen-inpaktuaren azterketa zuzena dela eta indarrean dagoen araudian aurreikusten diren alderdietara egokitzen dela aintzat hartuta, Ingurumen Sailburuordetzak, Ingurumen-inpaktuari buruzko Adierazpena emateko eskumena duen organoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren arabera, honako hau

EBAZTEN DU:

1.– Zeanuriko Xorokil harrobia ustiatzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuari buruzko aldeko adierazpena egitea; Cantera Zeanuri, S.L. merkataritza-sozietateak sustatu du proiektu hori.

2.– Honako baldintza hauek ezartzea proiektua burutzeko (baldintzok lotesleak dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.2 artikuluari jarraikiz).

2.A.– Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko espedienteari erantsitako dokumentazioarekin bat etorriaz gauzatu beharko da proiektua, eta, bereziki, ebazpen honetan finkatutako zehaztapenen arabera.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat. Dekretu horren bidez onartu zen proiektuen ingurumen-inpaktua ebaluatzeko Legearen testu bategina.

Proiektuan egingo diren aldaketa puntualak arrazoitu egin beharko dira ingurumenaren ikuspegitik, baldin eta aurreko idatzi-zatian adierazitako garrantzirik ez badute eta jarduerak egiten diren bitartean sortzen badira. Kasu horietan, neurri babesle eta zuzentzaileetan, eta ingurumena zaintzeko programan egin beharreko aldaketak egingo dira.

2.C.– Neurri babesleak eta zuzentzaileak.

Neurri babesle eta zuzentzaileak honelaxe burutuko dira: proiektuaren titularrak ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko aurkeztu zituen agirietan jasotakoaren arabera. Era horretan, neurri horiek hartzeak, batetik, eta kontrolerako jarritako langileek, bestetik, bermatu ahal izango dituzte azterketan jasotako kalitate-helburuak, eta bai Ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen honetan ezarritakoak ere. Ondorengo idatzi-zatietan adierazitako neurriak ere gehitu beharko dira.

2.c.1.– Proiektuaren eremua.

2.c.1.1.– Jardueraren eraginpeko gehienezko esparrua sustatzaileak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduran aurkeztutako dokumentazioan aurreikusitako mugekin bat etorriko da. Muga horiek «Xorokil harrobiaren ingurumen-inpaktuaren azterlanari erantsitako dokumentuak: Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak 2012ko uztailean egindako galderei emandako erantzunak» dokumentuko «Proiektuaren bukaerako konfigurazioa eta ingurunea» planoan datoz. Dokumentu hori Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Ingurumen Sailburuordetzara bidali zen, 2012ko urriaren 4an.

Muga horien erreferentzia bat finkatze aldera, proiektuak gehienez izango duen eragin-eremua zedarritu beharko da, tokian bertan mugarriztatuta.

2.c.2.– Ondare naturala babesteko neurriak.

2.c.2.1.– Bertako zenbait baso-espezien gaineko berariazko araudiari buruzko urriaren 14ko 11/1997 Foru Aginduan xedatutakoa aplikagarri bada ere, ustiategi ondoko edo aurreikusitako sarbide ondoko interes naturalistikoko eremuetan (9120 Habitata: pagadi azidofilo atlantikoak; eta 91E0* Habitata: baso alubialak, Alnus likatsua eta Fraxinus excelsior-a dutenak), kontu handiz ibili beharko da, behar baino zabalera handiagoak eraginik jaso ez dezan.

Horretarako, mugaketa zehatz bat egin beharko da, eta gune horien ustiapenaren fase bakoitza balizatu, kaltetu ditzakeen edozein ekintzatatik babesteko.

2.c.2.2.– Harrobiaren eraginpeko eremuan, ferra-saguzar handia (Rhinolophus ferrumequinum) dabilela ikusi da, eta espezie hori Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan kalteberatzat jotzen da.

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 10eko Agindua (agindu horren bidez, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen da, eta testu bakarra onartzen da) aplikagarri badira ere, ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean eta beraren dokumentazio osagarrian proposatzen denez, Eguskiola eta Xarokil harrobietan egin beharreko lanak abuztutik urrira bitartean egingo dira, espezie horren ugalgaraitik eta ibernazio-arotik kanpo.

2.c.2.3.– Harrobiaren eraginpeko eremua bat dator bisoi europarra (Mustela lutreola) bizitzeko Lehenetsitako Alde batekin. Ekainaren 19ko 118/2006 Foru Dekretua bete beharra dago. Foru-dekretu horren bidez, Bisoi Europarraren, Mustela lutreola (Linnaeus, 1761) Kudeaketa Plana onetsi da, Bizkaiko Lurralde Historikoan, galtzeko arriskuan dagoen espeziea den eta babesteko neurri bereziak behar diren aldetik.

Proiektuaren sustatzaileak proposatutako neurriak hartuko dira, eta bereziki, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren 2011ko azaroaren 22ko txostenean aipatzen direnak. Txosten hori ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozedurak eragindako administrazioei entzunaldia egin bitartean eman zen.

2.c.3.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Uren arloan legeriak xedatutakoren aurka egin gabe, eta, halaber, ibai-arroko erakundeak, bere eskumenpeko ekintzei dagokienez, ezartzen dituen baldintzen aurka egin gabe, honako neurri babesleak eta zuzentzaileak aplikatu beharko dira:

2.c.3.1.– Errespetatu egingo dira bide publikoaren mugaketa-lerrora arteko 15 metroko gutxieneko tarteak, km^2 batetik 10 km-ra bitarteko arroa duten errekastoetarako (Undabe ibaia), beti ere kontuan harturik EAEko isurialde atlantikoko eta isurialde mediterraneoko ibai- eta erreka-ertzen antolamendurako lurraldearen arloko planak dioena, bai eta Uren Legeak xedatutakoa ere, km^2 bat baino gutxiago duten arroako gainerako isurtzeetarako (Xorokil edo Baldaseta errekastoa).

2.c.3.2.– Itzultze-aldia 500 urtekoa duen etorbidea dagoen aldean ez da inolako aldaketarik egingo; ez da egingo ez laguntzeko instalaziorik, ez eraikinik, ez batzeko eremurik, ez zabortegirik...

2.c.3.3.– Proiektuak ingurumenean duen eragina ebaluatzeko espedientean dauden agirien arabera, ustiategian sortzen diren isurketa-urak drainatzeko sare bat egingo da ustiategi-zuloko isurketa-ur guztia biltzeko, harrobiaren instalazioen eremuko ura eta sarbideko eta ustiategiko pisten eremuko ura barne.

Aipatutako drainatze-sarearen azken elementua dekantazio-baltsen sistema bat izango da, solidoen atxikitze hoberena bermatzeko eta, edonola ere, isurketa lokalizatua eta indarrean dagoen legeriaren araberako uraren parametro fisiko-kimikoak betetzen dituena bermatzeko beharrezko kalkulu hidraulikoen araberakoa.

Horretarako, proiektu bat prestatu beharko da non jasotzen diren euri- eta ureztatze-uren drainatze-sarea, solidoen dekantazio-baltsen sistemak (koipeak eta gantzak ezabatzeko gailuak dituztenak) eta ur horiek jardueraren prozesuetan berrerabiltzeko behar diren elementuak, eta hori guztia dabiltzan emarien eta jarduerak dituen beharrizanen arabera. Drainatze-sare hori eta sare

horren azken elementuak ustiategiaren egituraketari egokitu behar zaizkio, proiektuaren garapen-faseetan zehar.

Jarduera horiek biltzen dituen proiektua Ingurumen Sailburuordetzak eman beharko du, onetsia izateko, ustiatze-proiektua onartu aurretik.

2.c.3.4.– Sustatzaileak, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako agirietan adierazi bezala bildu eta araztuko dira hondakin-ur sanitarioak.

2.c.3.5.– Ustiategiko hondakin-urak (isurketa direnak) tratatzeko sistema guztiek irteerako kutxeta bana izango dute laginak hartzeko. Edozein modutan, ibai-ibilgura isurtzeko baldintzak arro-erakundeak erabakitzen duen moduan gauzatuko dira.

2.c.3.6.– Aurreko epigrafeetan aurreikusi diren hondakin-urak tratatzeko sistemak aldian-aldian garbitu behar dira, tratamendu-sistemaren etekinik onena bermatzeko eta uneoro erabilera gaitasun nahikoa eduki dezaten.

2.c.3.7.– Erregaien zama-lanak, olio aldaketak eta ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko lanak zola iragazgaitza eta isurketak biltzeko sistema dauzkan leku batean egingo dira, nahi gabe egiten diren isurketen ondorioak arintzeko.

2.c.3.8.– Ustiategian, hidrokarburoak xurgatzeko material espezifikoa (erroilu erakoa edo gai pikortatuzkoa, etab.) izango da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala erabili ahal izateko.

2.c.4.– Hauts-isurketak murrizteko neurriak.

Urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuaren bitartez, atmosfera kutsa dezaketen jardueren katalogoa eguneratzen da eta hura aplikatzeko oinarrizko xedapenak ezartzen dira. Bada, dekretu horren eranskinean jasotzen da jarduera, eta azaroaren 15eko 34/2011 Legean eta azaroaren 27ko 278/2007 Dekretuan ezarritako obligazioei eta baimen-erregimenari egokitu beharko zaie (abenduaren 27ko 278/2011 Dekretua, atmosfera kutsa dezaketen jarduerak gauzatzen diren instalazioak arautzen dituena; eta azaroaren 15eko 34/2007 Legea, atmosfera babesteari eta airearen kalitateari buruzkoa). Aurrekoaz gain, neurri babesle eta zuzentzaile hauek hartuko dira:

2.c.4.1.– Partikuletarako immisioko muga-balioak –urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretuan ezarritakoak– gainditu gabe gauzatu beharko da jarduera.

2.c.4.2.– Zulaketako eragiketetan, lan-talde guztiek hauts-kaptadoreak izan beharko dituzte.

2.c.4.3.– Erauzketa-eremuak eta kamioiak ibiltzen diren eremuak ureztatzeko beharrezko bitartekoak izango dira, hautsaren barreiadura ahalik eta gehien murrizteko. Instalazioen eremua nahiz harrobiko sarbideak mantendu eta garbitu beharko dira, hautsa ahalik eta gutxien barreia dadin.

2.c.4.4.– Ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean aurreikusitakoaren arabera, agregakinak birrindu, sailkatu eta biltegiratzeko behin-behineko instalazioetan partikulen isurketa murrizteko gailuak jarri beharko dira, hautsa erruz sortzen den aldeetan. Zinta garraiatzaileak estalita egongo dira; eta birrintze- eta sailkatze-instalazioek eta zinta garraiatzaileen arteko transferentzia-puntuek ixte-egiturak izango dituzte.

2.c.4.5.– Ustiapenaren hurrengo faseetan ezarriko diren instalazioen kasuan (agregakinak tratatzeko behin betiko instalazioak eta hormigoi-fabrika), lehenago Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko da instalazio horiei buruzko proiektu espezifiko bat, eta hor zehaztuko da zer neurri hartuko dituzten hautsik ez sortzeko eta sortzen dena gutxitzeko.

2.c.4.6.– Kamioiak ustiategitik ateratzean saiatuko dira errepidean lokatzik ez zabaltzen eta hautsik ez harrotzen. Horretarako, harrobiaren irteeran, gurpilak garbitzeko gailuak ezarri beharko dira.

Gurpilak garbitzeko gailu horien proiektua, uren dekantaziorako sistema bat barne duena, Ingurumen Sailburuordetza honetara bidali beharko da, jarduerari ekin aurretik.

2.c.4.7.– Materiala garraiatzeko kamioiek zama estaltzeko olanak izango dituzte, airean barreiatu ez daitezen.

2.c.4.8.– Ustiategian hautsa murrizteko instalatutako sistemei ahalik eta etekin handiena ateratzeko, jardunbide egokien kodea ezarri, eta harrobiko langileei sistema nola erabili erakutsi behar zaie. Jardueraren eta eguraldiaren arabera beharrezkoa den puntuetan ureztapen-sistema aktibatu beharko da, eta kamioien gurpilak harrobitik irten aurretik garbitzeko sistema bat erabiliko da.

2.c.5.– Zaraten eta bibrazioen ondorioak gutxitzeko neurriak.

2.c.5.1.– Zarata, sortzen den lekuan, praktika operatibo onak aplikatu beharko dira ustiapen-fasean zehar; batez ere, zamalanetan, garraio-lanetan eta erabiltzen den makinariaren mantentze orokorra egiterakoan.

2.c.5.2.– Leherketen proiektuak UNE 22-381-93 arauaren arabera egin behar dira; hortaz, proiektuaren eragin-eremuan dauden eraikinetan eragindako bibrazioek ezingo dituzte arauan ezarritako mugak gainditu. Aireko uhinaren presioari dagokionez, ezingo ditu 128 dB(L) gainditu –muturreko balioak-, eraikuntzen agerieneko fatxadan.

2.c.5.3.– Sustatzaileak banan-banako informazio sistema antolatu behar du harrobitik hurbil bizi direnentzat. Horrela, auzokoek zehatz jakingo dute zer-nolako neurriak hartu behar dituzten leherketek eragiten dituzten dardaren eta aire-uhinaren ondorioak gutxitu eta kontrolatzeko.

2.c.5.4.– Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuko 22. artikuluan xedatutakoaren arabera, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta isurpen akustikoei dagokienez, erabilitako makinek kanpoaldean erabilitako makinen soinu-emisioei buruzko indarreko legedian ezarritako xedapenak bete beharko dituzte eta, bereziki, haientzat aplikagarria denean, kanpoaldean erabiltzen diren makina jakin batzuek ingurumenean eragiten dituzten soinu-emisioak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan xedatutakoa.

2.c.5.5.– Era berean, eta 1367/2007 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, jarduerak beharrezko neurriak hartuko ditu, bere eremu akustikotik kanpoko ingurumenean III. eranskineko B1 taulako muga-balioetan ezarritako zarata-maila ez gainditzeko (IV eranskineko prozedurei jarraituz ebaluatuko da maila hori).

Jardueraren zuzeneko edo zeharkako eraginez, aipatutako arauaren 14. eta 16. artikuluetan zaratari buruz ezarritako kalitate helburuak gainditzen badira, jarduera horrek neurriak hartu beharko ditu helburu horiek ez gainditzeko.

2.c.6.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

2.c.6.1.– Jarduerak iraun bitartean sortutako hondakinak Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira.

Erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babestu eta leheneratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuak agintzen duenaren arabera kudeatuko dira meategiko hondakinak.

Debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorrian bertan bereiziko dira, eta hondakinak biltzeko eta biltegiratzeko bitarteko egokiak jarriko dira, nahasketarik ez gertatzeko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro, lehentasunez, behar bezala baimendutako balorazio-prozesu batetik igaro beharko da. Alde horretatik, honako lehentasun-hurrenkera hau ezartzen da: berriro erabiltzeko prestatzea; birziklatzea; beste balorizazio mota bat, balorizazio energetikoa barne dela. Kasu honetan soilik ezabatu ahal izango dira hondakinak: aldez aurretik behar bezala egiaztatzen bada ez dela bideragarria haiek balorizatzea teknikaren, ekonomiaren edota ingurumen aldetik.

2.c.6.2.– Zabortegira bidali beharreko hondakinak, gainera, Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta Hondakinak zabortegietan utziz ezabatzea eta betelanak egikaritzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira. Hondakin horiek Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz karakterizatu beharko dira. Erabaki horren bidez hondakinak zabortegietan hartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dira, 1999/31/EEE Direktibaren 16. artikuluarekin eta II. eranskinarekin bat etorriz.

2.c.6.3.– Jardueraren soberakinak bideratu lekizkiekeen betegarriek otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan xedatutako baldintzak bete behar dituzte.

Betelaneko materialak eta lurzorua egokitzeko lanetarako, kutsatzaile-edukia A ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako baloreen azpitik duten materialak bakarrik baimenduko dira. Adierazle horiek lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinean daude jasota.

2.c.6.4.– Proiektua gauzatzerakoan hondakinak sortzen badira eraikitze- eta eraiste-lanen ondorioz (onura-instalazio berriak egitea, instalazio zaharkituak eraistea eta abar), hondakin horiek otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira, eraikitze- eta eraiste-hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen baititu.

2.c.6.5.– Hondakin arriskutsuentzako ontzien kasuan, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dira (833/1988 Dekretua, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen duena); ontziak itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, aipatutako uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera.

2.c.6.6.– Erabilitako olioei dagokienez, erabilitako industria-olioen kudeaketari buruzko ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretua aplikatuko dira.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, erabilitako olioa andel estankoetan bilduko da estalitako biltegi batean; andelok etiketatuta egon eta azpila edo atxikipen-sistemaren bat eduki

beharko dute. Zola iragazgaitzaren gainean egon beharko dute, edozein ihes edo isuriri aurre egiteko prestatuta, elementu nagusia hautsiko balitz ere.

2.c.6.7.– Araudi hau errazago betetzeko, lanetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak edukiko dira. Sistema horiek zeregin bakoitzaren arduradunek kudeatuko dituzte, eta horiek arduratuko dira beharginek behar bezala erabiltzeaz. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik erregai eta produktuak biltegiratzean eta makineria mantentzeko lanak egitean, ezta hondakinik erreko ere.

Eremu jakin bat egokituko da, instalazio estaliekin, aldi batean hondakin arriskutsuak pilatzeko; hala nola, olio-poteak, iragazkiak, olioak, margoak eta abar. Gainera, hondakin geldoentzako edukiontziak ere jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita.

2.c.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskadiko kultura-ondareari buruzko 7/1990 Legearen beste xedapen batzuk bete arren, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak ingurumen-inpaktua ebaluatzeko prozeduran emandako txostenaren arabera, babesteko eta zuzentzeko neurri hauek hartuko dira:

2.c.7.1.– Eguskiolako kobazuloa, aurretiazko ebaluazio-lanetan haren zati batean esku hartu baita, guztiz hondeatu behar da, zientifikoki hondeatu ere, harik eta inguru horretatik ondasun guztiak kendu arte.

2.c.7.2.– Xorokilgo kobazuloa, 2010. urtean zundaketa arkeologikoen bidez ebaluatu zena, laginketa estratigrafikoaren beste kanpaina batean aztertu behar da, ikusirik nolako interesa piztu duten esku-hartze horretan lortu diren datu mikropaleontologikoek. Nolanahi ere, aldian behin, harrobiaren ustiapen-lanek dirauten bitartean, kobazuloaren kontrol arkeologikoak egin beharko dira.

2.c.7.3.– Kobazuloak burdin hesi batez itxi behar dira, barruan lan zientifikorik egiten ez den bitartean, duten ondarea babeste aldera.

Bestalde, ustiatze-lanak egin bitartean aurkikuntza arkeologikorik egin bada, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saila jakinaren gainean jarri behar da berehala, azken horrek egoki diren neurriak ezar ditzan.

2.c.8.– Ustialekuaren eraginpeko paisaia eta eremua leheneratzeko neurriak.

Erauzketa-lanek aldatutako naturguneak lehengoratzeari buruzko ekainaren 20ko 115/2000 Dekretuan eta Erauzketa-industrien hondakinak kudeatzeari eta meategietako jarduerak eragindako tokiak babestu eta leheneratzeari buruzko ekainaren 12ko 975/2009 Errege Dekretuan xedatutakoaren kontra egin gabe, proiektuaren ingurumen-inpaktua ebaluatzeko aurkeztutako dokumentazioko proposamenaren arabera egingo dira leheneratze-lanak. Kontuan hartuko da, orobat, «Xorokil harrobiaren ingurumen-inpaktuaren azterlanari erantsitako dokumentuak: Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak 2012ko uztailean egindako galderei emandako erantzunak» dokumentuan aurreikusitakoa; dokumentu hori Energia eta Meategien Zuzendaritzak Ingurumen Sailburuordetzari bidali zion, 2012ko urriaren 4an. Gainera, babesteko eta zuzentzeko neurri hauek hartuko dira:

2.c.8.1.– Landare-berritzeak, bertako espezieak sartuta, landaretza-masa trinkoak eta jarraituak ezartzeko aukera eman behar du; habitat naturalak sortu behar dira, eta, ahal dela, horiek inguruan dagoen landaredia naturalarekin lotu.

2.c.8.2.– Robinia pseudoacacia, Cortaderia selloana edo beste landare inbaditzaile batzuk ez zabaltzeko ekintzak burutuko dira. Alde horretatik, landare-estalkia leheneratzeko erabilitako lurren jatorria kontrolatu beharko da bereziki, espezie horiekin kutsatutako lurrak ez erabiltzeko.

2.c.8.3.– Erauzketa lanek erasandako alde guztiak leheneratuko dira; baita leheneratze-planean agertzen ez zirenak baina azkenean ustiapenaren ondorioz kaltetu direnak ere.

2.c.8.4.– Harrobiko pagadia kentzeak ingurumenean duen eragina aritzeko, proiektuaren sustatzaileak konpentsazio modura proposatu du landareberritzea egitea, Gorbeiako eta Urkiolako parke naturalen arteko pasabidean pagadi bat sortu nahirik. 41.570 m^2 landareberritu nahi dira.

Konpentsazio-ekintzak honelaxe planifikatuko dira: konpentsatu nahi den inpaktuari aurrea hartzeko moduan, betiere delako inpaktua ekiditeko edo ahalik eta denbora gutxienean izateko konpentsaziorik gabe.

2.D.– Ingurumena zaintzeko programa.

Jardueraren titularrak proiektuaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten denaren arabera egingo da ingurumena zaintzeko programa. Gainera, ondoren zehazten diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

2.d.1.– Jardueraren praktika onen kontrola.

Praktika onak kontrolatu egingo dira jardueran zehar; proiektuaren ekintzek duten eragina egiaztatuko da eta arreta berezia jarriko da eragindako azalera, hautsa eta zarata, ur-kudeaketa, hondakinen kudeaketa eta Ingurumen Eraginaren Deklarazioan adierazitako beste alderdi batzuetan.

2.d.2.– Uren kalitate-kontrola.

Isuria baimentzen duen erakunde eskumendunak ezarritakoa gorabehera, efluenteen kalitatea aztertuko da solidoen dekantaziorako sistemen irteeran. Horretarako, jarduera hasi eta urtebeteko epean, hilero neurtuko dira honako parametro hauek: pH-a, konduktibitatea, solido esekiak, olioak eta koipeak eta hidrokarburoak.

Aldi horren ondoren, kontrolen maiztasuna izango da isurketen baimenean organo eskudunak ezarritakoa.

Undabe ibaiaren eta Xorokil errekastoaren uren kalitatearen analisiak egingo dira, isurketa-gunetik uretan gora eta uretan behera. Horretarako, IBMWP indize biotikoa kalkulatuko da, bai eta honako parametro fisiko-kimiko hauek ere: pH-a, konduktibitatea, olio eta koipeak, eta solido esekiak. Parametro fisiko-kimikoetarako, neurketen maiztasuna ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanean aurreikusitakoa izango da. Indize biologikoa kalkulatzeko, urtean bi lagin hartuko dira, bata udaberrian eta bestea agorraldian.

2.d.3.– Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, ingurumen-inpaktuaren azterlanean eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak biltzeko.

Programa horretan, kontrolatuko diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira, bai eta beste hauek ere: laginketarako eta analisirako metodologia; kontrol-puntuak non dauden kokatuta xehetasunezko kartografian; kontrol horien maiztasuna; eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak.

2.d.4.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, ingurumenean aditua den erakunde batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan emaitzak analizatuko dira, eta batez ere, epe horretan izandako gertakari nagusiak, gertakari horiek izatearen arrazoiak eta irtenbideak; eta aurretik zehaztu ez diren kasuetan lagin-hartzearen xehetasunak aztertuko dira.

Kasu bakoitzean aplika daitekeen arautegia kaltetu gabe, sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta herri-administrazioen ikuskaritza-zerbitzuen esku egongo dira.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, ingurumen-organoak neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldaraz ditzake. Hori guztia, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta, edo ingurumen-inpaktuak saihesteko ezarri diren neurri babesle, zuzentzaile zein osabidezkoak gutxiegizkoak direla egiaztatzen denean.

2.F.– Ebazpen honetako aurreko puntuetan xedatutakoa gorabehera, ustiapen-proiektua, onartu aurretik, Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko da, drainatze-sarearen proiektua, dekantazio-baltsen sistema eta ura berrerabiltzeko zirkuitua onets ditzan.

Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko du eskumena duen organoak, oniritzia eman ondoren.

2.G.– Ebazpen honetako aurreko paragrafoetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, honako agiri hauek igorri beharko dira Ingurumen Sailburuordetzara, espedientean sartu daitezen:

2.g.1.– Gurpilak garbitzeko gailuaren proiektua, jarduera hasi aurretik.

2.g.2.– Ebazpen hau jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean, ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina, ebazpen honen 2.d.3. puntuan azaldua.

2.g.3.– Behin betiko birrintze-instalazioa eta hormigoi-fabrika abiarazi aurretik, instalazio horietan hautsa gutxitzeko aurreikusitako gailuen xehetasun-proiektua.

Agiri horiek Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko ditu eskumena duen organoak, oniritzia eman ondoren.

2.g.4.– Urtean behin, ingurumena zaintzeko programaren emaitzak, ebazpen honen 2.d.4 puntuan ezarritakoaren arabera.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legeak 47.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen honek, ondorio guztietarako, jarduera-lizentzia emateko behar diren neurri zuzentzaileen txostena ordezkatzen du.

4.– Proiektuen ingurumen-inpaktuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera,

proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

5.– Ingurumen-inpaktuari buruzko adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 9a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.